

# balaitze

2005eko ABENDUA,  
139. ZENB. DOHAINIK

## Elena Irureta

**Aupa Etxebeste!  
eta beste mila  
istorio**



## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

### Koordinatzailea

Itziar Mora

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbiet

Itziar Garate

Izaskun Urbiet

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Juan Luis Romatet

### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Joanito Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola,

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

943 86 15 45 tel.

### Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
puntocom .....	7
ze berri .....	8
erreportajea <b>motorrak eta auzokoen kexak</b> .....	14
elkarrizketa <b>elena irureta</b> .....	17
orain hamar urte .....	22
gure zumai zarra <b>jontxu altzibar eizagirre</b> .....	24
kirolak <b>pilates</b> .....	28
kultura .....	30
<b>klarinete maratoia</b> <b>itaka</b> <b>zine forum</b>	
agenda .....	34



erreportai

## motorrak eta gazteak

Auzokoen eta motoristen  
arteko arazoa ez da  
berria. Zenbaki honetan,  
gai horri buruzko  
zenbait iritzi bildu  
ditugu.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Zumaiaiko Udala**



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**gizarte ekintza**



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



**GIPUZKOAKO**  
FORU ALDUNDIA

## Ez nau izutzen negu hurbilak..

Gogoko dudalako, udaberri berde eta koloresua, uda urdin horixka eta udazken marroi gorria gogoko ditudan bezala.

Dakidalako negurik ezean beste urtarorik ere ez litzatekela izango. Nolabaitezko neguak lehen ere nolabaitezko udaberri, uda, eta udazkenak ekarri izan dituelako.

Guztia present den bitartean gozatu behar delako!

Izanere negu atari hontan gozamenetik dexente izan da bertsolaritza gustoko dugunontzat. Saio ederrak entzuteko aukera izan da eta bertsolaritza heldu bezain gazte dagoela ere ikusi ahal izan dugu saioetan bildu den jendetzarekin. Bai bai, EUSKALERRRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA-ri buruz hari naiz, Lekunberrin lehen pausoa eman zuenetik ale ederrik entzun

dugu eta gazteek oso maila altua erakutsi dute.

Bat edo beste finaletik kanpora gelditzeak pena eman dit baina horrela izaten da jokua, beraz animo eta jarraitu egurra ematen!

Final haundia dator orain guztion gozagarri, Jon ere bertan izango da gainera, finalaurretan bere bertsoz majo gozatuarazi bagaitu adi egon finalean eskuak bapo gorrituaraziko dizkigulako!

Beraz negua bero bero asteko aukera ezin hobea aurrean dugunez izango da hotzari aurre egiteko indarrik

- izan huntsa
- bai, eongo gatzik!



Unai Gijarro Iruretagoiena

dani



## GORDOAREN KONTUA

Inaki Errasti Enparantza "Katu"

Iaz Euskal Herrian 29.000 milioitik gora pezeta jokatu ziren "El Gordo" loterian.

Sari nagusietan 250 milioi pezeta jaso ziren Euskal Herrian. Espainiar estatuak 128.000 milioi pezeta garbi irabazi zituen "El Gordo" loteriaren bitartez.

## Ohituragatik ?!?



xa 2

-Zergatik?  
 -Ohituragatik.  
 Hori da erantzuna.  
 Hori da arrazoia. Hori da dogma. Bedeinkatu berri dituzte arraunlariek irabazitako banderak, eta egunotan nire inguruan galdera bat egiten aritu naiz, zergatik egiten den bedeinkazio hori alegia, eta horratx

erantzuna: ohituragatik. Horregatik bakarrik? Edo Arraun Elkartekoek Elizak emandako bedeinkapen horretan benetan sinesten dutelako? Afaritara joateko lehenbizi Parrokiatik pasa behar al da?

Batzuetan neure buruari galdetzen diot zergatik bustitzen ote duan ogia besteen lapikotako saltsetan.

Arrauneko banderarena adibide bat besterik ez da. Bi aste beranduago etorriko zaizkigu Gabonak, eta horiek bai egun ederrak Ohiturarentzat (bai, maiuskularekin, berezko izaera duen erakundea dela dirudi eta!). Munduan berri ona zabaldu zen Jesusen jaiotzarekin, mundua nola dabilen ikusita, askok kasu handirik ez ziotela egin badirudi ere. Zergatik ospatzen da abenduaren 25an Jaunaren Jaiotza, beste hilabete batean jaio zela guztiz frogatuta baldin badago? Ohituragatik esango dizute. Egiari bizkarra eman dio

Elizak eta benetan dagokion ospakizun eguna (?) baztertu du. Katolikoan aurretik, egun horietan neguko solstizioa ospatzeko ohitura zegoen (ekainaren 24koaren gisa berean, baina hotzez). Festa hura xurgatu, ezkutatu eta estali zutela gogoratzea, ez letorke gaizki Ohitura honen dataren zergatia argitzeko. Baina orain nola aldatuko dute dataz, kontsumoaren erlijioak bere pagotxik handiena Belengo estalpeko lastoaren kontura egiten du eta. Herrietan egiten diren kristau jaiotza erraldoiak, erregezaleen zamalkada koloretsuak eta *Niño Jesusen eskia...* Udaleko programazioan ikusten ditudanean, beste toki batean erroldatzeko gogoia sartzen zait, zerbait esatearren. Eta zergez ez dugu hitz egingo...



Ohituragatik San Telmotako prozesioan udal ordezkariak. Ohituragatik mutilak bakarrik oilasko biltzean. Ohituragatik frontoi berriaren inaugurazioa apaizaren ur bedeinkatuarekin. Ohituragatik hilabeteak eta urte osoak. Bizitza osoa Ohituragatik.



**ilarfi**  
 Alai auzategia, 2  
 Tel. 943 14 33 24



**Itzurun**  
 ATEAK

- Material guztietako leihoak:  
 PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua  
 Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Erretetgio  
 OIKIA 943 147083

## ANTZERKI-TAILERRAK ETA BESTE

Txinparta Euskara Taldea

### Bazen behin antzerkizale...

Agian, batzuek gogoan izango duzue izan zela, Zumaian, lan bikaina egin zuen antzerki-talde bat. Antzezlanen bat aurkezten zutenean, jende asko hurbiltzen zen haien lana ikustera. Urte batzuen ondoren, ordea, desagertu egin zen talde hura. Baina ziur badela, oraindik ere, antzerkirako zaletasuna duen zumaiarrik.

Dakizueenez, hilero bi antzerki-lan ekarri ohi dituzte Zumaiara: obra horietako bat helduentzako izaten da; bestea, berriz, haurren gozagarri. Arrakastatsuak izan ohi dira, eta gehientsuenak euskaraz (haurrentzat ekartzen direnak, guztiak). Ezin esan, beraz, euskaraz antzerkirik egin ezin daitekeenik, ezta ikustea atsegin ez zaigunik ere.

Horregatik, zumaian antzerkiko zaletasun handia dagoela uste dugulako, antzerki-tailerra antolatu dugu datorren urte hasierarako. Tailerrari urtarrilaren 14an ekingo zaio, eta apirilaren leian amaituko da. Irakaslea, berriz, antzerki munduan lan handia egin duen herritar



ezaguna izango da: Inaxio Tolosa, noski.

### Izena emateko epea zabalik dago

Tailerra Alondegian egingo da, gela handian, eta 20 euroko matrikula izango du. Izena emateko epea irekita dago dagoeneko, eta urtarrilaren 10ean amaituko da. Bide hauek dituzue izena emateko: gure helbide elektronikora idatz dezakezue (txinpartazu-maia@euskalerrria.org), edo Forondara jo (943-861056 telefono zenbakira deitu, edo foronda@zumaia.net helbide elektronikora idatzi). Parte hartzaileek 16 urte eginda izan beharko dituzte. Eta adin horretatik gorako edonork har dezake parte, gogorik falta ez badu, behintzat.

### Eskerrak

Txinpartako kideok eskerrak eman nahi dizkiogu Zumaiako Udalari, tailer hau antolatzeko asmoaren berri eman genionetik eman duen laguntzagatik.

### Asmo berriak

Udaberrirako, berriz, haurrentzako antzerki-tailerra antolatzeko asmotan gabilta. Aste Santuaren ostean ekingo zaio tailerrari, eta, ziur asko, ekainera arte luzatuko da. Oraindik gauza asko daude zehazteko, baina, dena ondo badoa, laster izango duzue horren berri ere. Beraz, adi egon!

Ez dugu ahaztu, ordea, data horien guztien aurretik Gabonak datozela. Eta taldeek izan ohi duten ohiturari jarraituz, guk ere otar bat zozketatuko dugu Gabonetan. Otarra euskarazko liburuz, jolasez eta diskoz osatuko dugu, eta denentzako zerbait egongo da. Eta, noski, guztiok animatzen zaituztegu zozketa-txartelak erostera.

**Eta ez ahaztu: Gabonetan ere, bizi eta gozatu euskaraz!**

ILEAPAINDEGIA  
IRUITZ

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS  
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrubaxaga plaza

943 86 19 16

# Bi inkesta, hamaika iritzi

Baten batek adierazi zuen alferfuta genbiltzala, eta, hori horrela ez dela erakusteko, bi inkesta jarri ditugu zintzilik.

Batzuek lan handia izan duzue. Izan ere, ez da erraza hemendik 10 urterako Zumaia irudikatzea... Batzuei ondo, besteei gaizki, alde batekoak irabazi arren, beste aldeko hainbat iritzi ere jaso dugu; bietarako, alde eta kontra egoteko arrazoiak dituenik ere egon da.

Bestalde, askoz argiagoa izan da oparien kontua. Olenztero oraingoan errege atera den arren, atzetik segika izan ditu beste hirurak. Batzuk ikatza, besteak urrea... baina batzuek, badaezpada ere, guztiei eskatu. Jantzi-gorridunbizar-txuriduna ere aukeratuko zenuten batzuek, aukeran jarri izan bagenu! Gabonetako argiak dantzan jarri dituenik ere izan da...

## INKESTA



## INKESTA



## IRITZI BATZUK

**Wali** 2005/11/17 - 05:47 PM

Ni bat nator Torkuato dionarekin. Niri ere ez zait erraza egiten proiektua bere osotasunean baloratzea, baina onartu beharra daukat orokorrean ikusitakoak, eta planteamendua gustatu zaidala. Bestalde, herrirako horren estrategikoa den gaita, eta horren aldaketa sakona ekar dezakeen zerbait izanik bestela egin behar litzatekeela iruditzen zait. Hau da, jendearen parte hartze zabalagoarekin, edo proiektuak lehiaketa bidez, edo ez dakit nola baino parte hartzea gehiago bultzatuz. Badirudi Zumaiaren antolamendu urbanistiko guztia herriko arkitektoaren esku dagoela, eta hori planteamendu mugatua iruditzen zait. Ideia gehiago egongo dira hortik zehar ezta? Zergatik mugatu Zumaiaren estrategia urbanistiko osoa horrela?

**trujas** 2005/11/17 - 08:02 PM

Zumayan aken filian proiektu ta obra danak beti enpresa berdiñak ite dituelako. Zeatik dia munipan kotxiak opelak? ta kontzejal ta alkatean kotxe gehienak ebai. Ba horreatik, hemen mafia asko zioq/n ta beti Enpresa, konstruktora, arkitekto....berdiñak daude. Diru zakarran usayea hamene danak. Alkate izateatik uain urbaismuaz omen dakiyen mekaniko bat ezauzte det nik.....

## IRITZI BATZUK

**Torkuato** 2005/12/06 - 08:19 AM

Urte batzuk badira ume izateari utzi niola ta ya ez diot inori ezer eskatzen. Jaso bai, opari bakarren batzuk jasotzen ditut. Eguberri egunian gehienbat. Gabon garaia ez det oso u, ordia. Ahal baldin badet kanpora jutio nahio. Daoneko jami ditzuzte argiak; dendariak kontsumitzaileen zal...; eta non daude orain hainbeste Agenda 21 eta kontsumo arduratsuaeren kontuak? Nere ustez argiak eta homelakoak jartzia galazi egin beharko lukete abenduaren 15a baino lehen, Zumaiaren eta beste edozein tokitan.

**itbaso** 2005/12/06 - 10:05 AM

Inkesta honetan erantzun bat falta da aukeran; biel...

**Baote** 2005/12/11 - 12:05 PM


Gastatu dirua alfer alferrik, gastatu edozertan gazteontzako batere geldi ez dadin. Argiak jarri nahi adina, baina dirua denentzako gastatu modu berdinean. Gabonak urtean behin dira, gazteok egunero gaude.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409



Emilio Perez  
Elektrigailu, telefono eta instalazio  
elektrikoen zainketa eta konposaketa

**ADI**

BASADI 2B  
20750 ZUMAIA  
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157  
E-mail: adiele@euskalnet.net

# Liburu eta diskoen azoka

**Gogoratzen Baleikek otsailean antolatu zuen Liburu azoka, eta dirua tsunamiak kaltetuei laguntzeko bideratu zela? Orain dela gutxi jakin dugu diru horrekin zer egin duten.**

Gasteizko Udalak bideratutako Lagundu Batticaloari proiektua hautatu genuen gure dirua bideratzeko. Orain urtebete tsunamiak eragindako kaltetuei laguntzeko sortu zen proiektua.

Itsasikararen indar basatiak bete-betean harrapatu zuen Batticaloa hiria; izan ere, hiria ekialdeko kostaldean eta altitude baxuan kokatuta dago, eta alde horretatik jo zuen tsunamiak. Hondamendia ikaragarria izan zen, eta, jakina, batez ere udalerriko auzo txiroenei egin zien kalte. Batticaloako udalerrian bakarrik, 1.472 hildako eta 630 desagertu daude.

Azokaren bitartez zumaiarrek emandako 4.028,67 euro bildu genituen, eta gaur jakin dugu zehazki zertan erabili dituzten. Ondoko lanetan aritzeko erabili da:

- Hondakinak garbitzea eta sarbideak irekitzea
- Estolderia berreraikitzea
- Larrialdiko ur hornitzea
- Errepideak konpontzea
- Jolaslekuak konpontzea
- Haurtzaindegiak berreraikitzea
- Laguntza kartografikoa

Proiektuari buruz gehiago jakin edo argazkiak ikusi nahi izanez gero, interneteko helbide honetara jo dezakezue: <http://batticaloa.geo.ar.tum.de/index.pl/eu>



## Liburu eta Diskoen Azoka (2006)

Baleike Kultur Elkartek bigarren aldiz antolatuko du liburu eta disko zaharren azoka. Datorren urteko otsailaren 10ean, 11n eta 12an izango da, ostiraletik igandera, aurten egin den leku berean: Oxford aretoan.

Aurten bezala, bigarren eskuko liburu, disko, komiki, bideo, DVD eta bideo jokoak izango dira salgai. Hain zaharrak ez direnak ere agian egongo dira.

Horretarako, aurretik denak bildu behar dira, eta antolazaleek Gernika parkean dagoen Turismo bulegoa aukeratu dute hori egiteko. Hortaz, abenduan eta urtarilean bertara eraman behar dira gero azokan salgai jarriko diren gauzak.

Iaz, Sri Lankako Batticaloa hirira bideratu ziren bildutako 4.000 euroak, eta hainbat lan egin da 2004ko abenduko itsasikarak gogor jo zuen lurralde hartan. Aurten oraindik ez dugu erabaki nora edo zertarako bideratuko den azokako dirua. Erroka bat dugu, ordea: guztion artean iazko arrakasta errepikatzea!

## H o r t z k l i n i k a

**MOZÈS HIRIART eta SOULIER**  
Odontologoak

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiari gabe)
- \* Endodontzia
- \* Inplantologia
- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hartz estetika (zeramika metalari gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

**Larunbatetan egun osoa zabalik**

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

## ZALLA

Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



Jon Maia Soria liburuak sinatzen Durangoko azokan.

## Riomundo, Jon Maiaren lehen liburua

**Aurreko zenbakian Jon Maiari egin genion elkarrizketan Bertso Txapelketari buruz arituginen, bai eta liburu bat idazteari buruz ere... Bada, zumaia bat ere izango dugu bertsoen azken festan! Eta, gainera, Jon Maiaren liburu berria Durangorako atera da. Liburuari buruz eta txapelketaz hitz egin dugu berarekin.**

Denboraz juxtu-juxtu ibili arren, Durangoko Azokarako kaleratu du bere lehenengo liburua: "Riomundo" jarri dio izena. Gu, Durangora joan ginen eta hantxe ikusi genuen herriko bertsolaria. Txalapartaren stand-ean harrapatu genuen liburuak sinatzen, gelditu ere egin gabe. Berak ere horrelaxe adierazi digu: " Ez genuen espero!". Sekulako sorpresa izan omen da liburuak izan duen harrera; izan ere, presaka eta azkeneko unean egin behar izan dute Durangorako egon zedin, eta publizitate kanpainarik ia egin gabe atera da. Jonek zioenez, "baldintza horietan kaleratu ondoren jendea horrela etortzea, sekulako ardura da niretzat". Gainera, bertsolariak adierazi digunez, lehenengo aldia da horrelako gauza pertsonal bat egiten duela, eta horrek bertigoa ematen duela ezin ukatu.

Liburua Soriatarren historian oinarrituta idatzi du Jonek, baina, jakina, fikzioa ere gehitu dio. Distantzia har-

tuz kontatu duela esan du Maiak, bere helburua ez baitzen beste batzuen azalean jarrita kontaketa egitea, baina bai orain arte idatzi ez den historia kontatzen saiatzea: des-terratuen historia. Bere hitzetan, gaur egungo euskaldun ugariren historia da liburuan agertzen dena, horregatik ez ditu erabili benetako jendearen izenak -abueloren eta abuelaren izenak izan ezik-.

Asko idatzi da Gerra Zibilari buruz, baina Jonen iritzi-z, orain arte hutsune bat zegoen: "Espainiako hainbat lurraldetatik Euskal Herrira etorritako familien istorioak falta dira". Jonek dioenez, miseriatik eta frankismoaren atzaparretatik ihes egindako familia ugari ahalegin handia egin du euskal gizartean integratzeko. Jonen ustez, "arinkeriak juzgatu dira, zergatik etorri ziren kontuan hartu gabe, eta maketo eta mantxurriano deitu zaie; familia haiek, ordea, ez dute erraza izan gizarteratzea: batetik, haientzat hemengo hizkuntza arrotza zelako, eta, bestetik, hemen ezkerreko kontzientziarik ez zegoelako. Etorri ziren lehenengo haien omenez idatzi omen du "Riomundo" liburua.

Bertso Txapelketarako duen asmoez galdetu diogunean, animatuta dagoela erantzun digu, "nire marka hausteko gogoz". Maiak, hirugarren txapelketa du aurtengoa, eta, beraz, lasai doa, "lana egin duenaren sentipenarekin". Beraz, gure aldetik, Jon zoriondu nahi dugu, bertsoetako finalean sartu delako, baina baita



**OPTIKA ZUMAIA**

Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A

**FARMA ZUMAIA  
PARAFARMASIA**

653 01 96 81

**PRODUKTUAK**

- Ume eta Haurrentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

**ZERBITZU BEREZIAK**

- Dietista, Naturopatia, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirofentzako, Lasaitzaleak, Estresaren, Antzietatearen, Buruko minen, Zirkulazio arazoan,... kontrakoak), Akupuntura: horratzekin eta horratzek gabe.

**BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA**



# Aurten ere antolatu da bertso astea

Txapelketa nagusiaren olatuarekin batera, aurten ere bertsoz betetako Gabonak datozkigu. Azken urteotako egitarauaren antzekoa prestatu dute Bertso Eskolakoek. Poteoan aldaketa bat egin behar izan dute eta ostiralean jarri, larunbatetako bi egunak (24a eta 31) bereziegiak direlako. Seguru, ordea, tal-detxoa elkartuko dela trikitilariekin batera hain sendo dagoen Amets Arzallus eta Zubeldia bertsolari bixiari jarraitzeko.

Honakoa da egitaraua:

**BERTSO-POTEOA**, trikitilariekin.  
Abenduaren 30ean, ostiralean.  
Arratsaldeko 6etan, merienda Tomas tabernan.  
Poteoa Erribera kalean, iluntzeko 7ak aldera hasita.

**AMETS ARZALLUS** eta **IKER ZUBELDIA**



**BERTSO-SAIOA**  
Urtarrilaren 7an, gaueko 10etan  
Aita Mari zineman

**MIREN AMURIZA**  
**MADDALEN ARZALLUS**  
**UNAI GAZTELUMENDI**  
**UNAI GIJARRO**  
**BEÑAT LIZASO**  
**JULEN ZELAIETA**

Amaieran VIII. bertsopaper lehiaketako sariak banatuko dira.

**GABONETAKO BERTSOPAPER LEHIAKETA**  
Joanito Dorronsoro VIII. saria  
Gaia: **EUSKARA ZUMAIAN**  
Epea: urtarrilaren 2a

Oinarriak osorik Foronda kultur etxean eskura ditzakuzu edo bestela [www.baleike.com](http://www.baleike.com) web gunean (berrien artean).



**Mota guztietako  
altzariak**

Xanti Osa

Amaia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385



**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

## Gabonetako ekitaldiak

Urtero bezala, herriko taldeek gabonetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hementxe dituzue horietako batzuk:

### Gabon Korua

Gabon Korua beste behin aterako da aurten. Hirurogei urte daramatza herriko koro honek Gabonetan ateratzen.

1944an hasi zen Gabon Korua kantatzen, Gazteen lagundia eta Andazarrateko eritegia batu ondoren. Urte hartan, Gabon Jaiak inguratu zirenean, gazteak gogoratu omen ziren herriko ohiturez eta gaixoen beharrez, Baleikeren aspaldiko zenbaki batean esaten zen moduan.

Hurrengo urteetan, kantu-eskea ere gehitu zioten eta horrela jarraitu zuten beste hogeita bat urtetan zehar. 70eko

hamarkadan, gauzak aldrebestu egin ziren, eta antolatzaile ziren taldeak desagertu egin ziren. Alabaina, Gabon Koruak aurrera jarraitu zuen.

Garai hartan hasi zen Koruaren eta Caritasen arteko harremana: elkarte horren laguntzaz eta herriko jendearen ekimenez, ordutik Gabon Koruak irtenaldia egiten jarraitzen du eta bildutakoa Caritasentzat izaten da. Hainbat eta hainbat izan dira urteetan zehar Gabon Koruan parte hartu duten zumaiaarrak, bai eta korua zuzentzeko lanetan aritu direnak ere.

### Euskal Presoen aldeko ekimenak

Presoen alde kantatzera aterako da herriko talde bat aurtengo Gabonetan ere. Asmo horrekin elkartzen da taldetxo bat Alondegian astean bizpahiru aldiz. Abenduaren 24an, kofradiatik aterako dira herrian zehar euskal kanta batzuk abesteko eta laguntza apur bat biltzeko. Abenduaren 31n, presoen alde urtero egiten den manifestazio isila ere egingo dute. Herriarrrak ekitaldi horietan parte hartzera animatzen dituzte.

### "Gabonetako Jaialdia" Maria eta Jose ikastetxean

Urtero bezala, "Gabonetako Jaialdia" prestatu dute Maria eta Jose ikastetxeko ikasle eta irakasleak. Martxoaren 18an izango da, arratsaldeko 5etan.

Ekitaldian, guztiak hartuko dute parte, haurtzaindegiko haur txikienetik hasita. Gogoz eta ilusioz prestatu omen dute ekitaldia, abesti, dantza eta antzezpenez osatua. Olentzero eta erregeen etorreraz ere gozatzeko aukera izango da.

Emanaldia bereziki ikastetxeko ikasleen gurasoei eskaintzen zaie, baina zumaiaar guztiak daude ikuskizunera gonbidatuta.

Bestalde, gogorarazi nahi dute abenduaren 24an eguerdiko 12:30etik aurrera Zumaiaiko kaleetan zehar ibiliko dela Maria eta Jose ikastetxeko koroa. Ekintza horrekin lortutako dirua aurten garatzen ari diren Venezuelako "Camusdos-coche" proiekturako eta Saharako herriari laguntzeko erabiliko da.



Auto-konponketak

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



# Abian da Zumaiako Gazte Asanblada

Aspalditik dabilta gazteak zerbaiten eskean. Gazte Batzordea desagertu zenetik, gazteen aldetik ekimenak eta indarra falta ziren. Horri aurre egin nahian, hitzordua jartzea erabaki zuten gazte batzuek. Hasierako ezin ulertuen ondoren, lehenengo bilera azaroaren 25erako deitu zuten.

Hamarrak bost gutxi zirenean, Oxford aurrean inork espero ez zuen jendetza ikusten zen. Guztiak ere koadrilatan banatuta, elkarrekin hitz egiteko beldurrez bezala. Barrura sartuta hartu genuen ezustekoa: gela txiki geratu zen bertara joan ziren guztientzat. Batzuk aulkietan eserita, besteak atzean zutik, gutxi batzuk lurrean eta gainontzekoak atearen ondoan zein atearen beste aldean.

Hamarrak pasatxo zirenean, gazteetariko batek hitza hartu zuen, eta lehenengo bilera hura nondik nora joango zen azaldu zuen. Gazte horrek Zarauzko Xakela Gazte Asanbladako kide bati eman zion hitza. Horrek Zarauzko gazteen hilabete luzeetako lan esperientzia kontatu zuen, eta argi utzi zuen lehenengo egin beharra bete zela ordurako: jendea elkartzea. Azaldu zuenez, lehenbiziko gauza ekintzak egitea da, eta horren ondoren ekintza horiek gauzatu ahal izateko leku bat eskatzea. Adierazi zuen gazte asanbladen helburua herriko jendearen (gazte eta ez hain gazteen) ase gabeko irrika horiek asetzea dela, eta horretarako hainbat ekintza egiten zirela. Azken finean, Udalak egiten duenaz gain, ekintza alternatibo batzuk sortzea dela helburua, herriari bizitasuna emateko. Azkenik, gaineratu zuen orain Zarautzen tokia eduki badutela, baina edozein unetan gal dezaketela.

Hala ere, aipagarria da lehenbiziko bilera hartan isiltasuna izan zela nagusi, eta egoera ikusita beste bilera bat egitea proposatu zen. Egun hartarako, bakoitzak gazte asanbladaren bidez zer lortu nahi duen pentsatzeko eskatu zen.

Iritsi zen ba bigarren bilera ere! Orduko horretan ere jende ugari bildu zen eta Debako Gazte Asanbladako kide izandako bi gazte etorri ziren. Horiek ere beren esperientzia kontatu zuten, DVD baten laguntzaz. DVDan azaltzen zena hunkigarria zen eta mugitzera bultzatzen zuen.

Horren ondoren, eztabaida zabaltzea izan zen asmoa; baina, berriro ere isiltasuna nagusitu zen, eta lehenengo bile-



ran Zarauzko Xakela Gazte Asanbladako kidea lagungarri izan zen bezala, bigarren horretan ere Debako gazteek bilera bideratzen lagundu zuten. Horrela, erritmoa hartu eta martxan jartzeko, azken finean isiltasun horrekin amaitzeko, bilera talde txikitik egitea erabaki zen. Alegia, koadrila bakoitze-ko pertsona bat edo bi gainerako koadriletakoekin hitz egitea, eta hurrengo ostiraleko bilera nagusian gainerakoei kontatzea taldea zertaz aritu den. Funtzionatzeko modu hori hasierako kontua bakarrik izango da, konfiantza lortu artekoa, horrela taldea aurrera eramatea errazagoa izango delakoan. Gerora, ordea, denek talde bat sortzea da helburua.

Duela urte batzuk Gazte Batzordea zegoen Zumaian, eta horren bidez herriak izugarrizko bizitasuna eta aberastasuna lortu zuen; besteak beste, kontzertuak, hitzaldiak, ibilaldiak, ikastaroak... antolatzen zituzten. Denborarekin, Batzordea desagertu egin zen, eta, indartzeko ondorengorik ez zegoenez, Zumaia gazte mugimendurik gabe geratu zen.

Espero dugu lehen Gazte Batzordeak izan zuen indarra izatea orain abian den Gazte Asanbladak, besteak beste herriari bizitasuna eman diezaiokelako, garai batean Gazte Batzordeak aldizkari honi bizia eman zion bezala.

dekorazioa  
**ALBERDI**

696 726188  
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

**OSTOLAZA**  
BURDINDEGIA

Jose M<sup>o</sup> Korta Industrigunea  
A1 - 4. Pabilioia  
tel.: 943 86 50 68  
fax: 943 86 13 45  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com

**TXINGURRI**  
Koop. Elk.  
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3<sup>a</sup> 20.800 ZARAUTZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
... mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kirol zelaien mantenimendua  
Txostenak ...  
aholkularitza teknikoa,  
Balaztiok



## Merkataritzan ere euskara txanpan

Abenduaren lean Foronda kultur etxean merkataritzan euskara bultzatzeko plana aurkeztu zuten, 30-35 dendari eta tabernariren aurrean. Diagnostikoan ikusitako emaitzak eta ondorioak aurkeztu eta gero, 2006rako asmoak eta ekintzak azaldu zituzten.

M<sup>a</sup> Eugenia Arrizabalaga alkateak, hasieran, euskara arlo guztietan erabiltzearen garrantzia azpimarratu zuen; Lore Gartziaarena eta Martin Imaz dendariak, berriz, lantaldean egindako lana izan dela nabarmendu zuten eta aurrerantzean herritarrek ere izango dutela zeregina; bukatzeko, Elhuyar Aholkularitzako teknikariek planaren xehetasunak azaldu zituzten: komunikazioan ahalegin handia egingo da (merkataria eta herritar guztiei zuzenduta), ikastaroak antolatuko dira, material lagungarria eskura jarri, etab.

Planaren lehen emaitza gisa, pote bat aurkeztu zuten, plana lantzen aritu den taldeak proposatuta: arkatxak eta boli-grafoak gordetzeko, plana gogoan izateko eta, euskararekin lotutako laguntza behar dutenean, euskara teknikariaren telefonoa eta helbidea eskura izateko.



### Iurre Eizagirrek irabazi du logotipo lehiaketa

Merkataritzarako plana aurkezteko ekitaldia Zumaiako EBPNren logotipoa aurkezteko ere aprobetxatu zuten. Iurre Eizagirre izan da, Euskararen Aholku Batzordekoek hala erabakita, lehiaketa irabazi eta 300 euroko saria jaso duena. Iurre bera izan zen Musika Bandarako logotipoaren lehiaketa irabazi zuena ere.

Merkatarien artean banatuko diren poteetan dagoeneko jarri dute logotipo berria eta aurrerantzean EBPN planarekin lotutako euskarrietan erabiltzeko asmoa dago.

*euskar  
txanpan*

# Motorrak vs atsedena

**Aspalditik datorren arazoa da, baina bada denbora pixka bat herrian ibiltzen diren motorzaleen inguruko kexarik entzuten ez genuela. Horrek, ordea, ez du esan**

**nahi auzoetako bizilagunek arazorik ez dutenik haiekin eta, batez ere, beren etxe azpian biltzen diren gazteekin. Batzuekin zein besteekin hitz egin dugu, eta egoera ezagutzeko aukera izan dugu.**

## IURE ALTZIBAR ETA MAITANE AGIRRE

Badirudi udaren etorrerarekin batera arazoak ugaritu zirela hainbat kaletan. Zenbaitzuk motorrekin kalera irten eta egunez zein gauez herriko kale batzuetan ibiltzen hasi ziren. Arazok ez dirudi handia, baina zenbait bizilagunek adierazi digute "Zarata benetako arazo bihurtu zela"; izan ere, "gazteek motorrekin kale hauen inguruetan lasterketak egiten zituzten". Lasterketa horiek eguneko zein ordutan egiten ziren ez digute zehaztu, baina esan digute zarata batez ere gauean entzuten zela. Hori guztia Izustarri kaleko hainbat bizilagunek adierazi digute.

Baina beti gertatzen den bezala, badirudi gai honek batzuei besteei baino gehiago eragiten ziela. Izan ere, batzuk egoerarekin deseroso sentitzen ziren; beste batzuek, berriz, gazteak zirela esanez justifikatzen dute. Buruhaustea, ordea, aldatu egin da denborak aurrera egin ahala: moto-

rrek sorturiko zarata baretu egin dela dirudi, baina bertako bizilagunak ez daude guztiz gustura, gazteak bertan egoten direlako, orain motorrik gabe.

Arazo honen harira, gertuko kale batean ere, Institutu aurrean dagoen Aita Marin, hain zuzen ere, gazte eta auzokoen artean liskarrak dituztela jakin dugu. Auzoko batekin hitz egin dugu eta orain arte gertatu diren zenbait kontu azaldu dizkigu. Han ere arazoa udatik ote datorren galdetuta, ezetz erantzun digu: "Hemendik belaunaldi ugari pasa dira, eta beti gertatu izan zaigu zerbaite; beraz, arazoa belaunaldikoa da".

Horiek motorrekin baino haserre handiagoa dute gazteekin; izan ere, "Etxe azpian egoten dira egunero, besteak beste iskanbila sortzen". Baina esan digutenez, iskanbila ez da jasan behar izan duten bakarra:



"Txiza egiten dute etxeko atarian, pintadak ere bai eta hiru aldiz garajerako atearen sarraila puskatu dute, giltzaren zati bat bertan sartuta. Arazo handiena gas hodiaren instalazioarena izan genuen. Instalazio guztia kalearen alde batean genuen

eta horren gainean zintzilik ibiltzaren ondorioz puskatu egin zen. Orduan instalazio osoa beste aldera pasa behar izan genuen".

Honen guztiaren aurrean neurririk hartu duten galdetuta, udaltzainei deitu izan dietela esan digute.

"Txiza egiten dute etxeko atarian, pintadak ere bai eta hiru aldiz garajerako atearen sarraila puskatu dute"

Udaltzaingoarekin hitz eginda, ordea, esan digute gazteak behin baino gehiagotan bidali dituztela, baina berriro ere itzuli egiten direla "Eta horren aurrean ezin dugu ezer egin, kalean baitaude". Azkenik, udaltzainek adierazi digutenez, "Eskatzen digute gauetan bertatik pasatzeko, baina gure zerbitzua gaueko bederatzietan amaitzen da; beraz, ez dagokigu guri hor esku hartzea".

Auzoan hartutako neurrien inguruan hainbat proposamen pentsatu dituzte, baina bat jakinarazi dute: "Aparejadoreari eskatu genion gure etxe inguruan baranda bat jartzeko, hau da, aurreko aldean baranda dagoen bezala atzeko aldean ere

gorbidean korrika: besteak beste  
gareko: 15m-4m.

**GARRAIOAK**  
Asensio Artebe Iturbe

Tel: 945 557 189 / 655 706 557  
Izasteri, 5-2A (Zumaia) - Aizpilagata, 16-E (Mondrón)

**SIWA**  
Belardenda

Basadi 9  
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masaiea
- Dietak
- Esthetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaiea eta Reiki ikastaroak

**gofi**  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

**Arkupe**  
Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

**TALAI**

INMOBILIARIA 943 143361  
BIDAIAK 943 143323

Ortega y gasset, 1

**Zumaia Hotela**

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64



"Bertan jarraituko dugu, ez dugulako nora joanik"



ipintzea, atari bakoitzaren sarrerearen alboan ate bat jarrita". Aparejadorearen erantzuna garbia izan omen zen, ordea: batetik, hura toki publikoa dela eta, beraz, ezin dela itxi, eta, bestetik, Udaletxera jo dezaketela, proiektua aurkeztu eta udalbatza egiteko eskatzea.

Arazoaren inguruan beste aldearen bertsioa jakin nahirik, etxe azpi horretan biltzen diren gazteengana joan gara. Haiek esandakoaren arabera "Egia da bertan egoten garela, eta talde asko biltzen gara, gainera". Auzokideek adierazi digute arazoa konpondu nahian eta errespetuz jaisten direla gazteengana, baina azken hauek gezurtatu egiten dute hala denik. Horien esanetan, oihuka eta biraoka jaisten dira beraiekin hitz egitera. Egoera txarra da, baina gazteek adierazi digutenez "Bertan jarraituko dugu, ez dugulako nora joanik".

Laburbilduz, esan liteke arazoa gehiago dela gazte eta auzokideen artekoa motorzaleena baino. Eta auzoko batek adierazi bezala kontua herriko belaunaldi askok bizitakoa da.



**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

English School  
**Harvest**

Merry Christmas and a Happy New Year  
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051



**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
**ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiaiko plaza, 2  
Tel. 943 143278



elena irureta aktorea

# "Niretzat arrakasta ez da sari bat irabaztea, lana izatea baizik"



*Hainbat proiektuetan parte hartu du aktore zumaiarrak. Antzerki, telesail, film eta abarretan ikusi dugu. Aski ezaguna da bere irribarrea eta umorea. Bere azken lanean ere, barre asko egin duela kontatu digu. Oso kontent dago "Aupa Etxebeste" filmak izan duen arrakastarekin.*

## IZASKUN URBIETA

**"Aupa Etxebeste" arrakasta izango zuela pentsatzekoa zen, baina espero al zenuten hainbeste?**

Telmo Esnal aspaldidanik izan dut lagun eta orain dela 2 urte pelikula bat egitekotan zebilela esan zidan. Ez zutela dirurik eta ondorioz ez zekitela noiz grabatuko zuten. Gidoia produktora batean egon zen 2-3 urtez eta ikusi zutenean ez zihoala aurrera, beste produktora batengana jo zuten. Dirurik gabe egitea ere pentsatu zuten. Zuzendariek zekiten gauza bakarra zen pelikulak aurrera atera behar zuela.

Ni ere egiteko prest nengoen, nahiz eta udara hartan lanez lepo ibili. Behin gidoia irakurrita, ideia asko gustatu zitzaidan. Nik komedia itxura hartu nion. Zuzendariak aldiz, egoera kezagarriago batetan oinarritzen ziren, nahiz eta puntu komiko batzuk ezarri.

Hori guztia zehaztuta, 2 produktorak proiektua hartu zutela esan zidaten (Irusoin eta Txepe larak). Nahiz eta aurrekontu handirik ez izan, 2 produktora horiekin egin genuen pelikula.

Kanpoko eszenak Asier Altunaren herrian, hau da, Bergaran grabatu genituen eta barrukoak dekoratuak izan ziren. Herriak asko lagundu zigan eta benetako festa izan zen hura.

Behin filma bukatu eta ikustean, lan polita egin genuela iruditu zitzaidan. Batez ere zuzendariek, gidoi ona eta



ondo landua baitzuten. Hauek beldurturik zeuden esternaldia zela eta ez-zela, gainera Donostiako Zinemaldian egin baikeuen. Guk toki txikiago batean nahiago genuen Zinemaldia handiegia iruditzen baizitzaigun. Bestalde, pelikulan bezela, gruan joan ginen zinemara baina oso gustora gelditu ginen pelikulak jendearengan izan zuen harrerarekin. Jendea oso gustora eta pozik atera zen.

**Gidoia irakurri ondoren, zerk bultzatu zintuen pelikula hau egitera?**

Egia esan, gidoia irakurri baino lehen ere banekien pelikula hau egingo nuela. Asier eta Telmo, Ramon Agirre eta bertako jendea lagunak ditut. Lagunen arteko lan batek ez badizu ilusiorik egiten, ez dizu ezerk egiten.

Gainera gidoia irakurritakoan ez nuen dudarik izan. Ideia oso originala iruditu zitzaidan, polita eta jatorra.

**Nola joan zen grabaketa? Ekipoarekin zer moduz?**

Oso ondo. Ni udara horretan lan askorekin ibili nintzen, bai telebistan eta landetxean. "Martin" bukatu bezain pronto, hurrengo egunean zehazki, hasi ginen grabatzen, iraillean. Ordurako naiko nekatuta nengoen eta pelikula grabatzen hasi behar nintzenez, pentsatzen nuen ea ez ote zen gehiegitxo izango. Baina alderantzizkoa gertatu zitzaidan, pila bat erlajatzen ninduen filma grabatzera joatea. Oso ondo konpontzen ginen eta eta parre asko botatzen genituen elkarrekin. Oso-oso jende

jatorrarekin egin nuen lan, benetan maitegarriak dira. Giro horrekin, lana oso erraz ateratzen da.

Gainera ekipo teknikoa ere ezaguna nuen eta ederki pasa genuen.

"Lagunen arteko lan batek ez badizu ilusiorik egiten, ez dizu ezerk egiten"

**Ba al duzu antzik Maria Luisa zure pertsonaiarekin?**

Antza izango dut nik egiten baitut eta Maria Luisarena. Hori bai, nere bizitzak eta berarenak ez dute zerikusirik. Bera emakume aburgesatu bat da eta besteak zer esango dutenari begira bizi da. Alde horretatik nik ez dut nere burua horrela ikusten.

**Nola prestatzen dituzu pertsonaiak?**

Gidoia hartu bezain azkar, nire papera irakurri egiten dut eta egiten dudana lehenabiziko gauza nere pertsonaia ulertzen saiatzea da; zergatik den horrelakoa, zergatik jokatzen duen horrela, etabar. Hau da, logika bat bilatzen diot, zer normalean pertsonaia guztiak logika baten barnean idatzirik daude.

Hots, nik beti defenditu izan ditut nire pertsonaiak. Nire ustez pertsonaiaren barnean oreka bilatu behar da.

Bestalde, gidoia idatzi duen pertsonarekin ere presta-

 <p><i>Gizonetzkoen moda</i></p> <p>Erribera kalea, 6 Tel. 861155</p>	 <p>juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57</p>	 <p>Arrain eta mariskoak</p> <p>Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak</p> <p>Zuloaga plaza, 1 Tel. 943862309</p>	
<p>Karmengo Ama, 14 E-20749 Arroa (Gipuzkoa) Tel/Fax: +34 943 14 83 06 e-mail: bakun@euskalnet.net</p>	 <p>finés french euskara englantí español catalonián suomi basc catalá finnois francés anglés catalán français castellano finnish inglés baski catalán</p> <p><b>Bakun</b> ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L</p>	 <p>ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543</p>	 <p>Urola plaza 3-5 Tel: 943 86 14 85</p>



tzen ditut nire pertsonaiak. Berak idatzi duenez, bere iritzia ere kontuan hartzen dut.

**Gidoia eta zuzendarien exigentziak izango dira baina, non dago Joxe Ramon Soroiz zure ohiko bikotekidea?**

Jose Ramonek eta nik 3 telesail egin ditugu batera: Bi eta Bat, Jaun ta Jabe eta Martin. Horietaz gain, hamaika lan egin ditugu bakoitzak bere kabuz baina gertatzen dena da jendeak erlazio hori bilatzen duela. Zuzendariak aldiz beraien lana finkatu eta egiterakoan ez dute beti bikote bera bilatzen. Hau da, bikote horrek zenbait lanetarako balioko du baina zuzendariak beste zerbait eskeini edo azaldu nahi badute ez dute bikote hori aukeratu.

**Aspaldian egin den euskarazko produkzioa da "Aupa Etxebeste", zer sentitu duzu bertan parte hartzean?**

Orain dela 12-13 urte ez zela euskarazko pelikularik egin. Hala ere animaziozko batzuk sortu dira. Esaterako, orain dela 4-5 urte horietako batean parte hartu nuen.

Baina film honekin sekulako poza sentitu dut, ez baita erraza euskarazko produkzio bat aurrera eramatea. Hala ere, poz gehiago hartuko nukeen hemendik aurrera

produkzio gehiago aurrera aterako balira, nahiz eta nik parte ez hartu.

**Donostiako Zinemaldiari pelikula honekin eman zitzaion hasiera. Publikoaren Saria ere zuei eman zizuten. Nola jaso zenuten sari hori?**

Oso pozik jaso genuen. Gainera lehen esan bezela, beldurrarekin joan ginen pentsatzen ea Zinemaldia gurtzat handiegia ote zen. Nazioarteko jaialdia da eta pelikula asko daude ikusgai. Gurea bezalako txikia ikustean uste

"Publikoaren Saria jasotzeak ilusio handia eman zigun. Azken finean pelikula publikoarentzat egiten baita"

genuen inolako zeresanik gabe pasako zela. Azkenean alderantzizkoa gertatu zen. Jendea gure zain zegoen eta arrakasta izan zuen. Gainera Publikoaren Saria jasotzeak ilusio handia eman zigun. Azken finean pelikula publikoarentzat egiten baita.

**Iraganera bueltatuz, nola gogoratzen dituzu zure lehen pausoak?**

Antzerti izeneko interpretazio eskolan hasi nintzen. Ni lehenengo promoziokoa nintzen eta nere kurtsoan 12 ikasle ginen, horietatik 3 zumairrak; Kandido Uranga, Inaxio Tolosa eta ni.

Oso ondo pasatzen genuen bertan, egunero ibiltzen ginen atzera eta aurrera. Gero anekdota asko izaten genituen kontatzeko. Antzerkigintzan hasi ginen eta Aizpea Goenaga eta ni baita Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoe-kin telebistan. Lan batek bestera eramaten gintuen. Guk ere gure aldetik lan asko sortu dugu; asko idatzi dugu, gure proiektu batzuk egin ahal izan ditugu, etabar.

Lehen esan bezela, lan batek beste bat ekartzen zigun eta hasiera-hasieratik ibili nintzen bai telebistan zein antzerkian. Genero bakar bat eginez bizitzea oso zaila da eta gaur egun antzerkian adibidez oraindik eta zailagoa. Batera edo bestera jo behar duzu.

#### Telebista, zinea, antzerkia... zein duzu nahiago?

Edozein. Bakoitzak du bere momentua eta horren araberata bata edo bestea aukeratuko nuke. Telebistan adibidez, lan oso politak edo behintzat gure gustokoak egin ditugu. Zinean eta antzerkian ere berdin. Batzutan oso gustora ibili naiz eta bestetan ez hainbeste. Hau gure lana da eta ikusle goaren aurrean denak oso polita ematen du baina askotan ez da horrela izaten eta zaila eta gogorra izaten da lana aurrera ateratzea.

#### Zure karrerako momenturik politena?

Nik ez nuke bat aukeratuko. Ni pozik nago, pozik nagoenean edota ondo sentitzen naizenean eta ez behar bada sari bat jasotzen dudanean.

Badaude lanean beste momentu asko oso gustora nagoela, nahiz eta gauza txiki bat egiten ari. Momentu politak badaude, jakina, baina zuk lortu behar dituzu. Ez ditu inork ikusten eta jendeak pentsatzen du sari bat jar-tzean baino ez zarela pozik jartzen.

"Gidoiak,  
antzerki obrak,  
monologoak eta  
abar idatzi ditut.  
(...) *Hau da hau*  
adibidez gu geuk  
idatzi, zuzendu  
eta interpretatu  
genuen"

Nik adibidez ez ditut nere etxean ipinita inongo sari edo argazkirik, denak gorderik daude. Horrek ez du esanahi, niri saririk jasotzeak ez didala ilusiorik egiten! Alderantziz, oso gustora jartzen naiz eta pila bat eskertzen ditut baina horrek ez nau batere eragiten.

Horrela, momentu estelar horiek ez dira neretzat nire momenturik onenak.

Niri, profesionalki pozik jartzen didana da nere lana mantentzea, jendea gustora sentitzea lan horrekin, hurrengo batetarako deitzen badidate, etabar. Honek guztiak ilusio gehiago egiten dit, edozein sarik baino.

#### Euskal Herritik kanpo lan asko egin duzu. Uste duzu arrakasta gehiago izan duzula hemendik kanpo?

Lana bilatzea oso zaila da. Euskal Herrian adibidez telesail bat 3 hilabetetan grabaturik egoten da, edo 6tan asko jota. Baina lan hori 4 urtetan ikusten da. Jendeak horregatik usten du zu 4 urte horietan zabilzala lanean baina ez da horrela izaten. Ondorioz, lana hemen eta hemendik kanpo egin beharrean aurkitzen gara.

Nik ez dut uste, Euskal Herritik kanpo arrakasta gehiago izan dudarik. Niretzat arrakasta lanean jarraitzea da. 23 urte nituenetik nabil lanean eta oraindik ez naiz geratu. Hau ez da izan arrakasta izan dudalako edo ez baizik eta lana gu geuk ere sortu dugulako. Hau da, ni ez naiz geldirik egon ezta niri deitzeko zain egon ere.

Gidoiak, antzerki obrak, monologoak eta abar idatzi ditut. Aizpea Goenagarekin ere zuzendu dut. "Hau da hau" adibidez gu geuk idatzi, zuzendu eta interpretatu genuen.



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

#### ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA



### **Aktoreen kantera ona al dago Euskal Herrian?**

Bai. Badago esaldi bat hau dioena: "no son todos los que estan ni estan todos los que son". Nire ustez hori horrela da, ez dut uste pertsona bat ikasketak egiteagatik aktore ona izango denik, oso txarrak ere badaude. Kalean berriz aktore pila bat ezagutu ahal ditzazkezu. Ni ziur nago kalean kasting bat eginez gero, aktore on asko aurkituko genituzkeela. Gertatzen dena da jendea ez dela hortik bizi.

### **Zein proiektu edo helburu dituzu hemendik aurrera?**

Nik proiektuak ez ditut izaten eta gainera ez ditut inoiz izan. Orain zerbait egiten ari banaiz, burubelarri hortan sartuta egoten naiz. Ez dut inoiz firmatu hemendik urtebetera edo 3 hilabetera egingo dudan proiektu bat. Maizterarte lana badut eta luze eta dena egiten zait ordurarte lan bera dudala pentsatzeak.

Inoiz ez dut jakin hurrengoan zer egingo dudan eta alde horretatik lasai bizi naiz nahiz eta dirua behar, noski. Beti pentsatu dut zerbait aterako zaidala edo bestela asma-tuko dudala.

### **Bukatzeko. Zein da aktore ona izateko sekretua?**

Niri pertsonalki gustatzen zaizkidan aktoreak ez dira oso

teknikoak izaten. Badaude batzuk beti ondo daudenak baina nik nahiago ditut egun batean erdi-purdi egiten dutenak eta beste egun batean momentu on-onak izaten dituztenak.

Aktore batzuek adibidez psikodrama asko erabiltzen dute. Hau da, negar egin behar badute eszena jakin batean, heriotza batean edo beste zerbaitetan pentsatzen jartzen dira horrela negarra ateratzeko. Nik ez dut horretan sinisten, neri iruditzen zait pertsona horrek ez duela momentu edo eszena hori bizi. Beharbada ondo egingo du sekuentzia baina tranpa hutsa izango da.

Nire ustez aktore batean naturaltasuna da gehien apreziatzen den ezaugarria. Aktore horrek eszena bizitzen badu, zuk zeuk ere sartu behar duzu paperean eta horrela lana errazago suertatzen da. Nire lankideak adibidez horretan oso onak dira. Euskadi mailan esango nuke oso oso maila altua dagoela.

Nik ez dut uste aktore izateko talentu berezirik behar denik. Beraz, edonor animatzen dut lan hau probatzera, esperientzia polita baita. Ahal badute behintzat nik aurrera jarraitzeko animatuko nituzke. Hori bai, aktore izan nahi dutenei aholku bat esango nieke: B plan bat prestaturik izatea badaezpada ere. Hau da A plana aktore izatea eta B plana beste zerbait, oso zaila baita hemendik bizitzea.

# Urolatik Larraulera

Ezetz, ez dugu Larraulera irteera bat antolatzeko asmorik. Urola aipatu dugu, Urolako angulei buruz idatzi baikenuen 1995eko azken zenbakian. Urrezko txitxarea gero eta urriagoa zela esaten genuen orduan, eta orain ere ez da ugartu. Angula harrapatzea gero eta zailago, eta prezioak ere goraka. Garai batean angula ugari harrapatzen zela esaten zuen Etxabetar batek orduko zenbaki hartan.

Urolatik Oikiara goaz. Izan ere, Oikiako frontoiairen proiektua lantzen ari zirela idatzi genuen 1995ean. Oikiarrak gustura ote daude?

Larraulera. Larraulera irteera antolatu nahaiian Gazte Batzordekoak ibili ziren urte hartan. 1995eko abenduan hara joateko gonbitea egin ziguten. Garai hartako Gazte Batzordea desagertu egin zen, baina badirudi haize berriak dabilzala orain Zumaiian. Hamar urte beranduago, 2006ak Zumaiako Gazte Asanblada indartua ekarriko al digu? Denborak esango du!

1995eko azaroan intsumisoei buruz idatzi bazen, ez zen gutxiagorako izan abenduko aldizkarian ere. Kode penal berriari buruz idatzi genuen, eta orduan epaitu zituztenei buruz: Iñaki Etxanizek jasotako sententzia bera jasoko zuen hilabete hartan epaitu behar zuten arroar batek ere (orain zumaiartuta dagoen gure lankide bat).

1995eko abenduan Kandido Urangari egin genion elkarrizketa. Orduko bere proiektuez aritu ginen. Euskal zineari buruz galdetuta, zer den ere ez zekiela erantzun zuen aktore zumaiarrak. *Aupa Etxebeste!* filmaren lehen emanalditik bizpahiru hilabete igaro dira. Zuek zer uste duzue: ba al da euskal zinerik? Izango al da inoiz?



**INMOBILIARIA**  
**Amaia**

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

*D'Ana*  
*Stilopandegia*

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

**AIZPURUA**

LIBRERIA

Alta-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

**Juaristi**  
**JATETXEA**

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



**BASUSTA**  
**ERRETEGIA**

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

## ZOZKETA MUNDIALA!!

Txalaparta argitaletxeak emanda Jon Maiaren "Riomundo" liburuaren dozena erdi bat ale zozketatuko ditugu gure irakurleen artean. Horretarako galdera hau erantzun beharko duzue:

### Zein da Jon Maiaren *abueloren* izena?

Erantzunak [elkartea@baleike.com](mailto:elkartea@baleike.com)era bidali edota Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) abenduaren 30a baino lehen. Erantzunekin batera izen abizenak eta telefono zenbakia jarri.



### Aurreko hilabeteko irabazleak



Partehartze handia izan denez, eta nahiko agenda genituenez, azkenean 16 ale zozketatu ditugu. Irabazleen izenak:

- Emerita Uranga
- Maria Arana
- Amaia Urbieta
- Itziar Olaizola
- Ibon Aizpurua
- Arantza Ugarte
- Ibon Manterola
- Iñigo San Martin
- Gorka Zabaleta
- Montse Atxega
- Aitor alkorta
- Ainhoa Sanchez
- Idoia Zearreta
- Aitor Aldai
- Itziar Albizu
- Guadalupe Egaña

Parte hartu eta zorte on!!

## Harpidetza kibraketa

# bultzatu hitza

## proiektua sendotzeko



52 euro ordainduz gero, zerbitzu osoa emango dizu:

- ▶ Urola Kostako albisteekin egunero 8 orrialde, euskaraz
- ▶ Kalitateko egunkaria
- ▶ Etxean jasoko duzu
- ▶ Zozketak, promozio sariak, deskontuak gerora...

## "Antzerkiak Mari kalean, apaizak zine mutua botatzen zuten tokixan eiten hitxuan"

ABELIN LINAZISORO

Jarrai dezagun. Familia fitxatuta zegoan zuen Xanti Bizkaira joan zelako. Zer egin zuen zuen aittak herrian geratu ahal izateko?

Bueno, gure Xanti aurrera jun ez balitz ere, nahiko fitxa bazian gure aittak. Ba, hori, gure aitta Olaizola medikuena jun huan. Hau Juan satriaren anaixa huan. Honena jun eta estomagotik nolako gaixki zebilen azaldu zioan. Eta kriston suertea izan zian. Olaizolak gure aitta ondo hartu zian eta gaixo zeola eta horrelako kontuak esaten paper bat ein zioan.

Itzal handia izango zian, orduan, mediku honek, ezta?

Jo! Hoixek txapel gorrixa jantzita ibiltzen hitxuan, motel!

Beraz, zuei ez zizueten denda kendu, ezta?

Ez. Guri ez. Beste abertzale asko dendarik gabe eta etxerik gabe geatu hitxuan, baina gu ez. Baina, nolakoa zen jende hau! Nola denda ez ziguten kendu, karlistarekete hauen mutil koskorrek dendara etortzen hitxuan harro-harro einda. Aizu, Xanti! Lan hau ein behar dezu! Eh, Xanti!, beste hau konpondu behar dezu! Mutil koskor hauek Pelayos hitxuan. (Flechas falangistak ziren eta Pelayos erreketek, gaztetxoak) Gure aittak, zer ba?, esaten bazun, aizu!, sarjentuak agindu du eta zeuk ikusiko dezu!, esaten huan hauen erantzuna.

*"Nazka-nazka einda  
Albertok: Seboa  
pusketa haundixa  
emateko esango zian,  
ba? Eta mutil  
koskorrek: Bai, noski,  
haundi-haundixa! Eta  
Albertok: Ba, esaiok  
hire sarjentu horrei  
pusketa haundirik ez  
daukatela."*



Lan hauek debalde egin beharko zituen, noski.

Jakina, ba! Debalde! Eta Alberto karnizeroari seboa kentzen ziuena. Akordatzen nauk egun batean neu karnizeixan nintzala nola etorri zan mutil koskor hauetako bat eta Albertori esan ziola: Sarjentuak esan dit seboa emateko! Eskazeixa zioan orduan, olixorik ez, seboa ere gutxi... Alberto nazka-nazka einda zioan beti seboa kentzera juten zialako eta esan zioan mutilari: Seboa pusqueta haundixa emateko esango zian, ba? Eta mutil koskorrek harro: Bai, noski. Haundi-haundixa! Eta Albertok: Ba esaiok hire sarjentu horrei pusqueta haundirik ez daukatela. Han jun huan mutil koskorra ezer gabe kalera.

Oso ona. Hauen kontu gehiago?

Esan ein behar al dia? Akordatzen nauk San Juan Itturriko aldameneko etxe bateko balkoitik txapel gorri hauek etxeko muebleak kalera laugarren pixutik bota zituztela. Kalte eiteko bakarrik. Gure aittari, batzokiko presidentea zelako delitua jarri eta "Por incautación de bienes" kriston multa aplikatu ziuena. 50.000 pezetako multa, hi! Diru hori ez zioan herri gutxitan, baina baten batek ondo asesoratu zian gure aitta. Enbargua planteatu eta denda subastan atera behar zien eta honek gure aittari esan zioan juzgatu subasta ein aurretik beste batekin hitz egiteko, honek diru gutxi eskaintzeko, jakina. Hone-

la, gure aittak honek baino gehixo eskaini zian eta ez zian galdu denda. Hauek herri osoan lapurtzen zien. Josteko makinak, alfonbrak,, danetik. Gero, Francok herri bat hartzen zun bakoitzean, txapel gorrixa jantzi eta Te Deum-a errezatzera, gerra irabazten ai zialako eskerrak emateko. Hik ba al dakik zuen amamarena? Ba, egun batian baziak Juana "Kalbarioz" kalian euritan, (bere adineko emakumeei elizan kalbaixoak edo gurutz-bidea eginarazteko ohitura zuelako jarri zioten ezizen hau) eta hara non ikusten dun karlista-errekete hauetako baten aitta guardasol dotore batekin dijoala. Hurreratu zikok Juana eta: Aizu adixkide!, guardasol hau neuria da! Eta danba!, guardasola eskutik kendu zioan. Guardasola Bizkaixan gerran zebilen Abeliño semearena izan behar zian.

#### **Besterik?**

Beste batean etorri dek gure dendara Julio Morrongoz-en semea eta: Aizu!, Zure semearen txistua hamen eongo da, ba? Gu bildurrak akabatzen. Gure aittak, zer ba? Ba, hor rekete bat dao txistua jotzen ikasi nahi duana eta honea etortzeko esan dit, zuek bat badakazuela-eta. Eta gure aittak anaiaren txistua eman behar izan zioan.

#### **Zuen Xanti gerran hil huan, ezta?**

Bai. Bilbo aldera erretiradan zetozela Artxanda bertan hil zien. Italianoak. Haren gorputzaren berririk ez diagu inoiz jakin.

#### **Gerra ondorengo giroa? Gosea? Arrazionamendua?**

Bueno, garai hartako gosetea pixkat esplikatu beharra zeok. Hau falta zala eta bestea falta zala, jateko falta haundixa huan, baina hainbeste ahalegintzen huan jendea hemendikan eta



*“Ba, gu bixok indarra  
einez makurtuta goazela,  
haize bolada batek jo eta  
bi anaixak angarilla eta  
guzti arbustuen kontra  
jun gitxuan aidian!  
Pentsa zak!”*

handikan jatekoa bilatzen eta ekaritzen, ze, uste diat esaten dan gose haundi hori inork ez zula pasa. Gauza asko falta bai, baina hemendik edo handik ateratzen huan. Akordatzen nauk bolada batian baba beltz haundihaundixa jaten gendula. Besterik ez dagonian, badakik.

#### **Lapurretak eta?**

Ez. Hori gutxik. Estazixoko bagoietatik fruta, sagar lapurreta... Behin

batian Luakixetatik txarri bat lapurtu eta mataixan hil zutela akordatzen nauk, baina gainuntzian gutxi. Bueno, ogixa ere rasionamentuan ematen zien. Torta izena zun txarriki bat huan. Trenean ekartzen zien.

#### **Trena aitatu dekenez, 1941ean tren-zubitik errixora trena erori zenekoa akordatzen al haiz?**

Akordatuko ez nauk, ba! Bertara jun ere jun gitxuan. Gu ailagatzerako hildako danak aterata zibitian. Gau hura bildurgarrixa izan huan. Akordatzen nauk hurrengo goizian Mari kaletik pasatu behar izan nula, ez zekiat nora juteko, eta kaleko galtzada ez huan ikusi ere egiten. Puskatutako teilaz josita zean. Gabez gu itxian sartuta gitxibitian, gure aitta ez huan atrebizten guri ezer esaten, baina denboraliak segi eta segi eiten zian. Kanpoan txaperoak ate joka pasatzen hitxuan laguntza eske. Trena ureta erori ein zala eta faborez estazixora juteko! Haize soinuakin eta kalera eroitzen



zian teilakin gu bildurtuta gitxibitien, baina halako batian esan zigun aittak: Mutilak, zoazte estazixora. Arrimatu hara ea zer dan eta zeozer ein behar baldin bada, ein. Gure itxian Trabajadores Vasco-eko angarilla bat zeoan gordeta eta hura eraman ginien. Larretxeneko etxera sartu gitxuan jakiteko zer egin behar zan eta, jo!, ume txiki bat ikusi ginien hantxe lurrean hilda. Ez gendula ezer eiteko, esan zigutean, hildakoak eta biziak danak ja ateata zibela trenetik. Haizeak jotzen zian, berriz! Akordatzan al haiz nolako arbusto haundixak ziben kuarletek (orain Basusta erretegia) estazixoraino kamixuan esker eskubi? Ba, gu bixok indarra einez makurtuta goazela, haize bolada batek jo eta bi anaixak angarilla eta guzti arbustuen kontra jun gitxuan aidian! Pentsa zak! Zakariase-neko astilleroaren teiltua oso-osorik eraman zian haizeak! Gero, tren-zubixan, hilda zebeak ez zien erremeixu-



rik, baina erituak eta ibili ezin zianak jaso eta Hotel Amayara eraman hitxuan. Han, gerra garaitik Hospital de Sangre zeoan jarrita. Italianoak eoten hitxuan. Gau hartan danak Hos-

pital de Sangrera eramanak izan hitxuan. Hauetako bat gure aittaren lagun baten semea huan. Donostiarra. Bilbotik Donostira zijoana. Gure aittari abixua pasatzeko eskatu eta aitta eta bixok jun gitxuan Hotel Amayara eta gure bidez pasatu zian hark abixua bere etxera ondo zegola esanez. Gerra garaixan Hospital de Sangre horretan hiltzen zianak Zumaiko kanpo santuan enterratzan hitxuan. Zazpi-zortzi edo gehixo baziala akordatzen nauk.

**Gerra bukatu ondoren, parrokiako apaizak batzokia zegoen lekuan Luistarren zentro parrokiakal bat jarri zitean erribera kalean. Gerra aurrean bezala hik antzerkiak egiten jarraitu al huen?**

Bueno, gerra ondoren hasiera batian antzerkiak Mari kalean, apaizak zine mutua botatzen zuten tokixan eiten hitxuan. Gerotxo, bai, gero lehen batzokixa zeon lekuan, Benantxio pelukeruaren aurrean, Erribera kalia.

CROISSANTERIA

pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

# Rosi

garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

## SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxe: 943 861416

*gidatzeko baimen guztiak*



**ALBAITARITZZA  
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00  
ostiralak 11:30-19:00

larunbatak itxita  
aldeaz aurretik deitu

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

*“Etorri huan frankista-karlista hauetako bat eta esan zian, ba, alegia, beaixek ere herrian zibela eta antzerkia erderaz eiteko eskubidea zutela.”*



**Funtzio asko egiten al zen?**

Hamabostean behin, uste diat. Negu garaixan. Axkate eta bixok pailazuena eiten ginien. Hark tontoena (benetako listoa) eta nik listoena (benetako ton-toa). Garai hartako neska gaztiak dana berotu hitxuan eta beren kontura hartu zien guri trajeak eiteko lana. Eta kriston dotore ertentzen ginien, traje haixekin eta ondo-ondo makillatuta.

**Antzerkiak nola egiten ziren, euskaraz ala erdaraz?**

Euskeraz noizean behin. Euskeraz gehixo ez ginien eiten frankista hauen kontrolagatik. Hasieran euskeraz hasi gitxuan, baina egun batian etorri huan frankista-karlista hauetako bat, goikoak bialduta izango huan, eta esan zian, ba, alegixa, beaixek ere herrixan zibela eta antzerkixa erderaz eiteko eskubi-

dea zutela. Horren aurrean apaizak bildurtu ein hitxuan eta gauzak oke-rragora juteko arriskua zeola eta erderaz ere eiten hasi gitxuan.

**Lehen batzokia zeneko luistarren zentroan antzerkiak egiten jardun huanean zenbat urte hituan?**

Ba... soldautzatik etorrita berehala. 24 urte-edo.

jarraituko du...

**Leikin**  
Zabarkitza, S.L.

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**DIGITAL+**

**ongizan**  
fisioterapia zentroa  
igor agirre eta idoia uranga

Tel./Fax: 943 53 53 05 • e-mail ongizan@euskainet.net  
Itzurun Zuhaitz-bidea 3-behea • 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)

**Arpaia**  
Zabarkitza

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**SAION**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3      **943 860151**

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

**Aita Mari 3.blokea**  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

# Pilates, fenomenoa

ITSASO IBARRA

Umetan asma eta hezurretako hainbat arazo izan zituen gizona izan zen Joseph Pilates (1888-1967) alemaniarra. Gaixotasun horiek gainditze aldera hainbat kirol diziplina probatu zituen: boxeoa, yoga... Denborarekin, bere teknika osatu zuen eta berau lantzen hasi zen Ingalaterrako erietxe batean. Bertan, ohean zeuden gaixoak kirola eginez hobeto sendatuko zirela pentsatu zuen, eta, hala, beraiekin lanean hasi zen oheetan polea batzuk jarrita. Horrela, kirola egin zuten gaixoei hobeto jasan zuten gero izan zuten epidemia bat. Ingalaterratik New Yorkera alde egin zuen Pilatesek, eta han metodoa artistekin landu zuen. Pila-


tesen metodoa aurten heldu da hona.

Joseph Pilatesek garatutako metodoa kontrologia izenarekin ezagutu zen hasieran, eta gerora Pilates izena hartu zuen. Metodoa zaharra da, baina batez ere Hollywoodeko aktoreak lantzen hasi zirelako egin da ezaguna: "Modan dago, jendeak ez daki zer den eta askok uste dute gorputz liraina lortzeko metodo ezin hobea dela, baina ez da hala", dio Amaia Martinek, Pilateseko irakasleak. "Pilates burua eta gorputza erabat lotzen dituen kirola da. Gure gorputza ezagutu behar dugu eta jakin ari-keta bat egiten badugu horrek zein eragin duen". Horrela, mugimendu bat egiteko kontzentrazio maila han-



dia behar da, "Pilates egitean ezin duzu egon beste gauza bat pentsatzen".

Metodo honen bitartez, norberak bere gorputza kontrolatzen eta hobeto erabiltzen ikasten du: "Klasean erabiltzen dudana terminologia azalduz ikasleek euren gorputza ezagutzen dute, abdominalak nola erabili... Bestalde, mugimenduak egiten ikasten dute gorputzeko beste ataletan tentsio gutxiago jarritz. Hau da, behar diren muskuluak





"Arnasketa da garrantzitsuena; izan ere, arnasketaren bidez mugimenduak erraztu edo zaildu daitezke"

bakarrik erabiltzen, behar baino gehiago ez. Besoa mugitu nahi badut, besoa mugitu behar dut, eta ez sorbalda, burua... Bestalde, gorputzaren posturak zuzendu egiten dira, denborarekin zuzenago jartzen gara eta horrekin bizkar eta lepoko minak gutxitzea lorzen da".

Pilatesen metodoak 500 ariketa baino gehiago dauzka eta hainbat

printzipio ditu: arnasketa, gorputzaren erdigunea, kontzentrazioa, burua eta gorputzaren kontrola, zehaztasuna eta arintasuna. Amaiak dioenez, "Arnasketa da garrantzitsuena; izan ere, arnasketaren bidez mugimenduak erraztu edo zaildu daitezke, giharrak oxigenatu. Bestalde, inoiz ez da egiten mugimendurik arnasari eutsita; hau da, ez da apnea egoeran geratzen". Zehaztasunari dagokionez, Pilatesen ez dira ariketak askotan errepikatzen, batez ere arnasketa eta mugimendua zaintzeko; gainera, ariketa guztiak muskuluak luzatuz egiten dira.

Bestalde, modalitate honek hainbat gaixotasunetan ere laguntzen du, osteoporosia eta bizkarreko minean,

besteak beste: "Giharrek indarra hartzen dute; horri esker, hezurrek ez dute hainbeste sufritzen eta hausteko aukerak gutxitu egiten dira".

Kirol hau banaka edo taldeka, makinekin edo gabe landu daiteke eta adin guztietako jendearentzat da. Zumaian taldeka eta makinarik gabe lantzen dute; izan ere, bakarka lantzea garestia da eta kirola guztien eskura jarri nahi dute. Gainera, Amaiak dioenez, "Pilates egokia da ariketa aerobiko batekin uztartzeko, abdominalak landu eta postura egokiak ikasteko. Adibidez, korrika egitea ona da, baina lehendabizi korrika egiten ikasi behar da. Beste kiroletan ere laguntzen du, gorputza kontrolatzen ikasten duzulako".



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

**Klarinete doinuak Ubillos jauregiko musika eskola osoan zabalduko dira abenduaren 20tik aurrera, egun horretan hasiko baita IV. Klarinete Maratoia. Antolatzailea, ohi bezala, Musika Patronatua izango da. Maratoiak lau egun iraungo du eta bertan egingo diren lanen inguruan aritu gara hitz egiten Marixi Sesma antolatzailearekin.**



## Klarinete doinuak Ubillos jauregian

JUAN LUIS ROMATET

2002. urtean egin zen lehen klarinete maratoia Zumaian. Orduetik, Gipuzkoako zenbait herritako musika eskoletako eta kontserbatorioan aritzen diren musikariek hartzen dute parte ekimen honetan. Batez beste, zortzi eta hamazazpi urte bitarteko 60-70 ikasle etortzen dira urtero jardunaldi hauetara. Errekorra bigarren edizioan izan zuten: 2003an 85 ikaslek eman zuten izena. Esperientzia haren ondorioz, kopuruari muga bat jartzea erabaki zuten antolatzaileek, oso zaila izan baitzen halako ikasle kopurua gobernatzea. Maratoian batez ere eskualdeko ikasleek hartzen dute parte, baina aurreko urteetan urrutia gotik ere etorri izan dira, adibidez Durangotik edo Hendaiatik.

Marixi Sesmak adierazi digu helburuetako bat klarinetearen zaletasuna zabaltzea dela. Ikasketetan aurrerapauso bat eman edo bide berriak jorratu nahi dituzten musikariak etortzen dira Zumaiara. Halaber, musika eskoletako ikasleen elkargune bat izatea ere nahi dute antolatzaileek, "Maratoi honetara etorrira, gaztetxoek beste herrietan honelako ekitaldiak antolatzen direla ikusten dute". Bere ustetan, esperientzia oso aberasgarria da ikasleentzat; izan ere, "Elkarrekin erlazionatzen ikasten dute. Eskola desberdinetako gaztetxoek batera egiten dute lan eta erabiltzen duten materialen elkartrukatzen dute".

Maratoi hau ez da, ordea, gaztetxoentzat bakarrik: goizetan kontserbatorioan aritzen diren musikariak eta musika eskoletako irakasleak elkartzeko dira. Musikari askok dute instrumentu hau lanbide eta maratoia horien topagune ere badela dio Marixik. Klarinetearen familiako instrumentu guztiekin egiten dute lan: sopranoa, rekintoa, corno di basseto, klarinete baxua eta abar. Errepertorioak parekatzeaz gain, dudak argitu eta egiten ari diren lan edo proiektuetan laguntza jasotzen dutela gehitu digu.



Aurreko hiru urteetan bezala, Carlos Casadó klarinete jole valentziarra izango da irakaslea. Casadó Gu Geu ganbera musika taldeko kolaboratzaile ere bada, eta puntako klarinete joleztat dauka Marixi Sesmak. Irakasle "finkoa" izateak baditu bere abantailak: "Berak ondo daki zer lan egiten den hemen eta guk badakigu noraino, zenbat exiji diezaiokegun".

### Ikastaroak eta entzunaldiak

Goizeko 10:00etan hasi eta gaua arte arituko dira lanean musika eskolan. Maratoian izena ematen dutenek bakar-kako ikastaroak jasotzeko aukera dute goizetan. Casadó bera da bakarkako saioen arduraduna eta gainerako partaideek ikastaroa entzule gisa jarrai dezakete. Arratsaldean, berriz, taldekako lana egiten da. "Saio hauen ardura irakasle gehiagoren artean banatzen da, maisu bakar batentzat ardura handiegia izaten baita", dio Sesmak. Eskoletako ikasleak elkartu eta jada aukeratuta dauden pieza batzuk entseatzan dituzte. Arratsaldeko saio hauetan Zumaia Udal Musika Bandaren baitan sortutako talde bat ere arituko da.

Astearte eta osteguneko azken ordu erdian entzunaldiak egingo dira Musika Bandaren lokalean. Musikarien entrenamenduak izango balira bezala, oholtzaren gainean nola mugitu ikasteko balio die. Baina ez hori bakarrik: "Prestatzen ari diren materiala jendaurrean jotzeko aukera ematen zaie eta horrela ikus edo nabari dezakete zer harrera duen". Jardunaldi osoan bezala, klarinetea da entzunaldi hauetan protagonista, nahiz eta beste instrumentu batzuekin elkarlanean aritu.

Jardunaldien amaieran, hilaren 23an, kontzertua izango da Maria eta Jose ikastetxeko antzokian. Arratsaldeetako ikastaroetan landutako materiala erakusteko aukera ematen zaie ikasleei. Emanaldiarekin amaitzeko, Carlos Casadó Udal Musika Bandarekin batera zenbait pieza joko ditu. Bukaeran, diplomak jasoko dituzte parte hartzaileek.

Urteak pasa ahala izena eta garrantzia hartzen joan da ekimen hau eta IV. edizio hau oraindik hasi ez bada ere, badirudi partaidetza aldetik arrakasta ziurtaturik duela. "Ikasle eta musikariak zain egoten dira eta askok aspaldi eman zuten izena", dio Marixik. Bada, ordea, oraindik izena emateko aukera. Horretarako, deitu 649 234 982 telefonora.

## EGOKI



*Erloju  
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

## BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
Tel. 943 14 33 69

# Itakaren Odisea

**Dakizuenez, Troiako gerra bukatu ondoren Ulises eta bere gizonak Itakara egin zuten bidaiari luzea kontatzen digu Odisea liburuak. Bidaia ez zen batere samurra izan, irauin zuen hamar urteetan hamaika zailtasun gainditu behar izan baitzituzten.**



HAIZE GALARRAGA

Itaka taldeak, bere odisea partikularra izan zuen orain dela gutxi. Erriberrira (Nafarroa) joan ziren autoz, han kontzertua eskaini behar baitzuten. Kontzertua berandu bukatuko zela eta lotarako leku baten bila aritu ziren, herritar baten argibideei jarraituz. Argibideak ez ziren espero bezain argiak izan, errepidean aurrera joan ahala bidea estutuz eta okertuz baitzihoan, eta kanpinik inon ageri ez.

Rubiok bolantearekin duen abilezia erakusteko aukera izan zuen lokatzetan sartua gidatzen saiatu zenean. Bere autoa, ordea, ez da rallytarako 4x4a eta, azkenean, trabatu egin zen. Ez aurrera eta ez atzera, handik ateratzeko modurik ez zegoen; orduan, gurpilek ezin duten tokian hanka sartu behar, eta baita sartu ere. Autoa bultzatzeko atera zirenean, a ze sustoa! Ia belaunetarainoko lokatza zegoen, eta zapatilak eta galtzak zikindu behar.

Horrela ba, autoari bultzaka eta bultzaka hasi ziren, baina autoa ezetz, egoskor; eta hori gutxi ez balitz, gaua gainera etorri. Mugikorra hartu eta Erriberriko kontaktuari SOS mezua bidali zioten, gutxi gorabehera non zeuden adieraziz.

Erriberrikoak, nafarren astakilo ospeari kasu eginez, zailtasunik gabe iritsi ziren Itakakoengana. Horiek, berriz, nafarrak iritsi zirenerako autoa zulotik ateratzea lortu zuten, eta denak batera Erriberriko bidea hartu zuten han kontzertua emateko asmoz.

Kontzertua oso ondo atera omen zen. Entzuleak hasieran harritu egin ziren musikariak ikustean, belaunetaraino lokatzez zerri-zerri eginda jotzen. Ez zekiten Woodstocketik etorritako hippieak edota eszenaratze original bat egin nahi zuten artista modernoak ziren. Baina tira, Itakakoek gustura jo zuten irribarre txikiarekin ahoan, eta Odisea ondo bukatu zen.

Itaka, Euskadi Gazteko maketa lehiaketan parte hartzen ari da. Zuen guztion botoak behar dituzte irabazteko!! Botoa emateko: [www.egaztea.com](http://www.egaztea.com)

**Itakaren hurrengo kontzertuak:**  
**Urtarrilaren 13an, Uztaritzen**  
**Otsailean, Altsasun**  
**Martxoaren 4an, Durangon**  
**Apirilean, Iruñean**

**Talde berria dugu Zumaian:**  
**Veronica Decides To Die**  
**Abenduaren 9an, ostiralean, kontzertua eman zuten Ondarroako Gaztetxean. Metal gogorra jotzen dute eta taldekideek eskarmentu handia dute:**

**Ahotsa: Petxa**  
**Gitarrak: Aimar (Pribatu Shock, Nidel) eta Jijas**  
**Baxua: Unai (Kontra)**  
**Bateria: Aitor (Azken Taupada)**  
**Perkusioa: Bon (Itaka)**

**Hurrengo batean ea taldekoekin hitz egiteko aukerarik dugun.**

## ZINE FORUM

abenduak 27, osteguna, gaueko 10:15ean

### Hierro 3

Zuzendaria: Kim Ki-duk Aktoreak: Lee Seung-yeon,  
Jae Hee, Kwon Hyuk-ho



Mutil gazte bat, argia, ikasketak amaituak dituena, bertakoak egun batzuetarako alde egin duten etxeetan bizi da. Ez du ezer lapurtzen, bere etxean balego bezain eroso egoten da eta gaintek matxuratuta dauden tresnak konpondu egiten ditu. Senarrak jipoitzen duen etxe horietako bateko emakumezko bat ezagutuko du eta...

Zuzendari korearrak, Woody Allen eta Michael Winterbottonen antzera, hamar hilabetetik behin filma berri bat egiten du eta zuzendari ingelesaren moduan gai aldetik denak oso desberdinak dira. Oraingo honetan mutil gazte honen bizimodu bitxia aitzakiatzat hartzen du gizarte kapitalistaren zutabeak (jabego pribatua, kontsumo gizartea, gizonezkoaren nagusitasuna) zalan-tzan jartzeko. Kim Ki-duk pertsonaia hau ispilu bezala erabiltzen du gu ikusleok kontura gaitezen zer gizarte motetan bizi garen. Ia irudi hutsetan egindako filma ederra (pertsonaiak ia ez dute hitz egiten), bitxia eta berezia.

### ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325

### Antonio Etxabe



Gizonezkoen  
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



tresna digi  
internet  
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95



## ITSASKI SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058

# Nikol Enea

**TABERNA**

Amaiako plaza

## gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



## IKASTAROAK

Ikasturtean zehar ikastaro hauetarako matrikula zabalik: Informazioa 943-861056

- HAUR PLASTIKA TAILERRA: asteazkenetan 17:30ean kultur etxean.
- BI ARRI: Eskulanak, Tiffany, Patchwork eta josteko lan txikiak.
- PINTURA TAILERRA: asteleheneetik ostegunera.
- YOGA: astearte eta ostegunetan 18:30ean.
- KZ Gunea: ikastaro eta mintegiak. 943-862866.

ANTZERKI TAILERRA: urtariletik aurrera. Izen ematea zabalik. Informazioa, kultur etxean edo txinpartazumaia@euskalerra.org helbidera idatzita.

## IRTEERAK

Turismo Bulegoak antolatuta: 943-143396

- abenduaren 8an eta 10ean, 16:30ean Zumaiaiko bisita kulturala.
- urtarrilaren 28an zumaierrentzat irteera kulturala: Sestao-Bilbao.

## ERAKUSKETAK

Abenduaren 16tik 18ra "Bidezko merkataritza azoka".  
Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra Forondako Bainika tailerrekoen lanak.

## DEIALDIAK

ZUMAIAKO VII ESKAPARATE LEHIAKETA

Eskapareatek prest egon beharko dute abenduaren 9tik 30era bitartean.

Izenematea: Kultur Etxean eta Turismo Bulegoan, abenduaren 7a baino lehen.

(943.861056 foronda@zumaia.net / 943-143396 turismoa@zumaia.net)

**BERTSO PAPER LEHIAKETA:**  
Joanito Dorronsoro VIII. Saria.  
Gaia: Euskara Zumaian. Epea: urtarrilaren 2a.

**GABONETAN KIROLDEGIAN:** Xake eta Futbol-8 txapelketak.

**IV. KLARINETE MARATOAIA:** data berriak, abenduaren 20tik 23ra.

## ABENDUA

16, ostirala

19:30ean Alondegian, Baleikeren "eta ibili munduan" zikloaren azken emanaldia: Josu Iztueta tolosarraren eskutik, "Nairobitarra: milioi bat kilometro lurrazaletik".

22:30ean Aita Mari aretoan, antzerkia: GLU GLU taldearen "Todos nacemos vascos".

17, larunbata

19:00etan Makrokalejira, bi banda elkartuta.

19:30ean Kontzertua Maria eta Jose Ikastetxean.

18, igandea

12:00etan Aita Mari aretoan, Haur antzerkia "HIRU TXERRIKUMEA". Sarrera: 2 euro.

24, larunbata

Eguerdia bitartean "Niño Jesusen eskian".

15:30ean Gabon Koruaren saioak kalez kale.

18:00etan Gabon Abestien Lehiaketa.

18:30ean Jaiotza ikuskizuna Eusebio Gurrutxaga plazan.

25, igandea

12:00etan Udal Musika Bandaren Eguberri kontzertua, San Pedro Txiki abesbatzaren parte hartzearekin.

27, asteartea

18:00etan Alondegian Gaztetxolak antolatuta, skate bideo emanaldiak "Street cinema 2005".

29, osteguna

18:00etan Alondegian Gaztetxolak antolatuta, skate bideo emanaldiak "Street cinema 2005".

22:15ean Aita Mari aretoan, zine forum saioa "Hiero 3".

30, ostirala

Egunean zehar, Odieta pilotalekuan, Gabonetako Haur Parkea.

18:00etan Tomas tabernan, Gabonetako VII. Bertso Astearren barne, merienda.

Jarraia, bertso-poteoa trikitilariekin Erribera kalean.

31, larunbata

18:30ean Beheko plazatik aterata: manifestazio isila, "Euskal presoak, etxera!".

## URTARRILA

4, asteartea

18:30ean Errege Magoentzako eskutitzen jasotzea.

5, asteazkena

18:00etatik aurrera, Errege Zamalkada.



Abenduaren 27an Alondegian Gaztetxolak antolatuta, skate munduari buruzko bideo emanaldiak izango dira.

## Street cinema 2005

7, larunbata

22:00etan Aita Mari aretoan, Bertsolari Gazteen Gabonetako Saioa: Miren Amuriza, Maddalen Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Unai Gaztelumendi, Unai Gijarro eta Beñat Lizaso.

12, osteguna

22:15ean Aita Mari aretoan, zine forum saioa "El Método".

20, ostirala

22:00etan Aita Mari aretoan, antzerkia "Larru haizetara".

26, osteguna

22:15ean Aita Mari aretoan, zine forum saioa "American Splendor" (J.B.).

29, igandea

12:00etan Aita Mari aretoan, haur antzerkia "Eugenia ardiaren bidaia".



**AUTO-ESKOLA**



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

**ZUMAI A**

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

*ile-apaindegia*



**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



# Casa BASUSTA



**CASA  
BASUSTA**  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
ZeramiKa-lanak eta zumezko saskiak




**Etxez etxeko zerbitzua**

Santiago Alzosa, 18 TEL: 943 862611